

# Ikerketa Estrategikoak

## 2. Zk.

### Krisiaren ondorio ekonomikoak

Europako ekonomiaren analisisia



**Ikerketa  
Sozialisten  
Institutua**

# Aurkibidea

|                                           |    |
|-------------------------------------------|----|
| 1. Azterlanaren helburua                  | 4  |
| 2. Aztergaia                              | 5  |
| 2.1. Irismen geografikoa                  | 5  |
| 2.2. Denbora tartea                       | 5  |
| 3. Azterlanaren hipotesia                 | 6  |
| 3.1. 2008ko krisia                        | 6  |
| 3.2. Europako ekonomia krisiaren ondoren  | 7  |
| 3.3. Gainmetaketa eta politika ekonomikoa | 8  |
| 4. Metodologia eta azterlanaren egitura   | 10 |
| 5. Marko Analitikoa                       | 13 |
| 6. Aztergaiaren kategorizazioa            | 18 |
| 6.1. Katetoria sinpleak                   | 18 |
| 6.2. Katetoria konplexuak                 | 20 |
| 7. Adierazleen eraketa                    | 22 |

|                                                                                        |           |
|----------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 7.1. Adierazle sinpleak                                                                | 22        |
| 7.2. Adierazle konplexuak                                                              | 24        |
| 7.3. Adierazleak prezioen maila orokorraren<br>bilakaerari egokitzea                   | 25        |
| <b>8. Analisia eta emaitzak</b>                                                        | <b>26</b> |
| 8.1. 2008: Lehia, irabazi urria eta zorra                                              | 26        |
| 8.2. Krisitik irtetea? Irabazi urria, metaketa<br>motela eta gutxieneko kapitalizazioa | 33        |
| 8.3. Gainmetaketaren politika ekonomikoa                                               | 38        |
| <b>9. Ondorioak</b>                                                                    | <b>45</b> |
| <b>10. Bibliografia eta Baliabide estatistikoak</b>                                    | <b>46</b> |

# 1. Azterlanaren helburua

Azterlan honen xedea da 2008. urtean hasi zen eta egungo koiuntura ekonomikoa bultzatu zuen krisiaren eragina analizatzea eta deskribatzea. Horretarako, Europako ekonomia aztertuko da finantza-krakaren aurretik eta ondoren. Horrela, kapital-metaketa baldintzatzen eta ahultzen zuten faktore estrukturalak identifikatuko dira, zeinak krisia hasi eta hurrengo urteetan ekonomiaren berrantolaketa bortitza eragin zuten.

Hazkunde-garai berririk ez da sumatzen; aitzitik, krisiaren ondorioz sortutako metaketa-dinamikak etekin eskasak eta pizgarri txikiak sortu zituen inbertsio kapitalistarentzat.

Gainera, politika ekonomikoa egoera hori areagotzen ari da. Finantziazorako sarbide errazak, errendimendu txikiko aktiboen erosketak eta, ondoren, diru-pizgarriek eta Estatuko funtsen bidez ekoizpen-ehunari laguntzeak eragin bikoitza dute. Kapitala berehala suntsitzea sahiesten badute ere, gainmetaketa bultzatzen dute, nahikoa lehiakorrak ez diren enpresa-unitateak ugaritzen baitituzte. Hori da gainbehera ekonomikoan dagoen Europaren mapa.

## 2. Aztergaia

Ikerketa honen helburua da 2008ko krisiaz geroztik Europan abiatu zen kapitalaren metaketa-dinamika aztertzea. Jarraian, ikerketaren lurralde- eta denbora-mugak azalduko dira.

### 2.1. IRISMEN GEOGRAFIKOA

Lurralde-eremuari dagokionez, gaur egun Europar Batasunaren parte diren 27 herrialdeetako datuak ikertuko dira. Izan ere, eurak dira adierazgarrienak Europari unitate geoekonomiko gisa erreparatzeko.

### 2.2.DENBORA TARTEA

1995 eta 2023 urte arteko datu ekonomikoak aztertuko dira, gehienbat. Nahiz eta Europar Batasuna 1993. urtean eratu, makroekonomiari buruz eskuragarri dauden datu-serieak 1995tik aurrerakoak dira. Beraz, krisi aurreko dinamika ekonomikoa 1995 eta 2007 arteko datuekin aztertuko da. Krak ondorengo dinamika, aldiz, 2008tik aurrerako datuekin. Datuen faltan, ahalik eta denbora-tarte zabalena aukeratuko da, diskriminazio gehigarririk gabe.

## 3. Azterlanaren hipotesia

Jarraian, azterlana egituratzen duen hipotesi multzo bat aurkeztuko da, azkenik zortzigarren atalean kontrastatuko direnak. Hiru gaitan multzokatu dira: 2008ko krisiaren karakterizazioa, finantza-krakaren ondoren azaleratu zen dinamika ekonomiko berria eta politika ekonomikoak kapital-metaketari eusten duen zeregina fase berri horretan.

### 3.1. 2008KO KRISIA

2008ko krisia gainmetaketa-krisia izan zen, hau da, modu errentagarrian inbertitu ezin den kapital asko pilatzeak eta, ondorioz, hura desbalorizatu beharrak eragindako krisia. Ordura arte, kapital-metaketa zor korporatiboaren jaulkipe-narekiko mende zegoen hein handian, baina irabaziak nahikoak izan ziren printzipala (hasieran maileguan utzitako diru-kopurua) birfinantzatzeko eta interesen ordainketak kitatzeko. Hala ere, finantza-krakaz geroztikako kiebrek eta ez-ordainketek finantzaketa-kostuak igo zituzten; eta, era berean, zaildu egin zuten zor-ordainketak egunean mantentzeko adina irabazten ez zuten kapitalen balorizazioa. Prozesu horren ondorioz, bost bat urtez kapitala suntsitu eta berregituratu zen. Horri dagokionez, honako elementuak aztertuko dira:

- Batetik, kapitalaren balio-osaeraren hazkunde jarraitua krisia hasi aurretik; bestetik, irabazi-tasaren bilakaera, lehenbiziko krisi-urteetan gogor jaitsi ondoren, geldialdian dagoena gaur egun arte.
- Europako metaketak zor korporatiboarekiko duen mendekotasuna.
- Finantzaketa-kostuak handitzean, metaketari eusteko batez besteko irabazi-tasa nahikorik ez izatea.
- Europako hainbat konpainiatan kaudimengabezia areagotu izana, aurreko urteetan baino magnitude nabarmen handiagoetan.
- Aktiboak beraien kontabilitate-balioa baino nabarmen prezio txikiagoetan saltzen dituzten konpainien fusioak eta erosketak haztea.

### **3.2.EUROPAKO EKONOMIA KRISIAREN ONDOREN**

Europako ekonomian gainmetatutako kapital-kantitatea hain zen handia, non finantza-krakaren ondoren depresio ekonomikoa etorri zen. Depresio hori Europako ekonomia osoan hainbat urtez hedatu zen, are gehiago bereziki kaltetutako herrialdeetan. Hala ere, kapital-suntsiketa handieneko urteak igaro ondoren, Europako ekonomia ez da itzuli krisiaren aurreko dinamika ekonomikora; aitzitik, irabazi-tasa baxuan harrapatuta geratu da, eta horrek eragotzi egiten du aurreko mailetatik hurbil dauden metaketa- eta inbertsio-mailetara itzultzea. Krisi horretatik eratorritako dinamika ekonomiko berriak balorizazio eskaseko egoera

orokortua du oinarri. Hori dela eta metaketa-dinamika ez da krisiaren aurreko normaltasunera itzuli, hots, ez da metaketa-egoera iraunkorrik berrezarri. Horiek horrela, ikerketak ondorengo puntuak hartzen ditu kontuan:

- Batez besteko irabazi-mailen arteko dibergentzia, finantza-krakaren aurretik eta ondoren.
- Kapitalaren metaketa-tasaren beherakada bortitza, jarduera ekonomikoaren adierazle nagusia dena.
- Kapitalizazio-tasa jaistea; horrek adierazten du, inbertitzeko irabazi txikiagoa izateaz gain, irabazitakoaren zati txikiagoa inbertitzen dela.

### **3.3.GAINMETAKETA ETA POLITIKA EKONOMIKOA**

Atzeraldi teknikoa amaituta, Europako politikariek mekanismo ugari eta sofistikatuak abiarazi zituzten mone-ta-politikaren arloan, Europako enpresen existentzia erraz-teko. Mekanismo horiek gaur egunera arte dira; horren adibide, pandemia garaian hartutako azken neurriak. Duela bi urtetik hona, aldiz, Estatua politika fiskala erabiltzen hasi da, oro har, moneta-politikak egiten zuen lana ordezteko: metaketa egonkortzea eta erraztea. Bi kasuetan, Estatuaren esku-hartzeak kapitalaren gainmetaketa bideratzen du eta eskala handituan erreproduzitzen du. Horrela, bultzada mo-netario eta fiskalik gabe merkatuan irauteko gai ez liratekeen kapitalek irautea ahalbidetzen du. Ildo horretan, atzeratu besterik ez du egiten saihestezina den hurrengo eztanda ekonomikoa, eta eztanda horren mende izango den kapi-

talaren magnitudea handitzea errazten du. Kasu honetan, honako hauek aztertuko dira:

- Europako Banku Zentralaren (EBZ) zeregina finantza-kraketik aurrera: kapitalei likidezia ematea, interes-tasak kontrolatuz eta errendimendu-aktiboak erosiz.
- 2020tik Estatuko politika fiskalak hartutako konfigurazio berria, bere mugetan enpresa-jarduera sustatzera eta laguntzera bideratua.

## 4. Metodologia eta azterlanaren egitura

Ikerketa hau koiuntura ekonomikoaren analisisia da, hots, kapital-metaketaren egungo egoerari, mugei eta garapen-legei buruzko azterlana. Ondorengo bi ataletan, bosgarrenean eta seigarrenean, egoera ekonomikoa aztertzeko erabiliko diren kontzeptu marxista guztiak definituko dira.

Nolanahi ere, analisisia gauzatzeko, beharrezkoa da aztertzea *Ekonomia politikoaren kritikako* kategoriek azterlan honetan erabiliko diren jarduera makroekonomikoaren adierazleekin duten erlazioa. Zazpigarren atalean zehaztuko da hori. Zortzigarren atalean, azterlanaren emaitzak azalduko dira, analisi labur batekin batera. Azkenik, bederatzigarren atalean, lanaren ondorioak aurkeztuko dira.

Azterlanaren metodologiari dagokionez, Kontabilitate Nazionalak jasotako datuak erabiliko dira; hots, lurralde jakinetan gertatzen den jarduera ekonomikoa erregistratzeko garatutako sistematik jasotakoak. Sistema horrek, bere kontu-multzoaren bidez, ekoizpen eta banaketa ekonomikoaren zenbakizko errepresentazioa eskaitzen du. Hala ere, neurketa eta sailkapenok egiteko erabiltzen diren kategoria analitikoek kapital-metaketaren funtzionamenduaren gaineko ulerkerak okerra dute oinarrian; eta, ondorioz, Kontabilitate Nazionalak ez du ondo zehazten nork ekoizten duen balioa eta zeinek egiten duen bere. Horregatik,

6.1. atalean aztertuko da nola erabil daitezkeen adierazle horiek Ekonomia politikoaren kritikako funtsezko aldagaiei gerturatzeko. Kontabilitate Nazionalaren kontuak eragiketa aritmetiko sinpleen bidez erlaziona daitezke (hala nola, batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak) adierazle konplexuagoak eraikitzeke. Bada, adierazle konplexuago horiek erabiliko dira analisisian, eta 6.2. atalean kontsulta daiteke nola sortu diren.

Europar Batasuneko herrialdeentzako Kontabilitate Nazionala AMECOn (*Annual Macro-Economic Database of the European Commission* edo Europako Batzordearen Urteko Datu Base Makroekonomikoa) bidez lortzen da. AMECO baseak Eurostat-eko eta nazioarteko beste erakundeetako datuak konbinatzen ditu, herrialde horietako jardun makroekonomikoaren adierazleak emateko. Bere sailkapen-sistema ESA 2010 da; eta, sailkapen-sistema horrek, aukera ematen du jarduera ekonomikoaren erregistro homogeneoa egiteko eta herrialdeen eta denbora-tarte ezberdinen arteko konparazioa egiteko. Kontabilitate Nazionaleko kontu partikularren inguruan aritzeko azterlanean erabilitako terminologia ESA 2010etik dator.

AMECOTik lortutako datuak erabili diren kasu guztietan, “European Union, Standard Aggregation, EUR/ECU” seriea erabili da. Horrek, gaur egungo Europar Batasuneko 27 herrialdeentzat datu agregatuak eskaintzen ditu euro arruntetan (edo, moneta erkidea sartu aurreko urteetarako, Europako monetara bihurtutako datuak, truke-tasa ofizialen arabera).

Adierazle horien magnitude guztiak termino errealetan eskeiniko dira, hots, prezioen urteko igoerari egotz dakizkiokeen alterazioak kenduta. Horri esker, bilakaera zehaztasun handiagoarekin azter daiteke. 7.3. atalean aldakuntza horiek kalkulatzeko erabilitako prezioen indizeei buruz zehaztasun handiagoa eskainiko da.

Bestalde, azterlan honek Kontabilitate Nazionaleko kontuak erabili gabe sortu diren aldagaien bilakaera ere aurkeztuko du. Kasu horietan, kontzeptu eta aldagai sinpleagoak direnez, azterlaneko marko analitikoaren berezko kategoriekin lotura zuzenik ez dutenak, zortzigarren atalean azalduko dira zuzenean, euren interpretazioarekin batera.

## 5. Marko Analitikoa

Kapitala, mugitu ahala haziz doan balioa da.  $D-M-D'$  formulak laburtzen du mugimendu hori: diru kopuru jakin bat ( $D$ ) aurreratu egiten da merkantziak ( $M$ ) salerosteko, kopuru handiago bat ( $D'$ ) berreskuratzeke helburuarekin. Kapitalaren balio-hazkunde sistematikoaren arrazoia da ekoizpen-prozesuan merkantzia bat dagoela, lan-indarra, balio-iturria dena.

Langilea ez da lan-bitartekoen jabe. Horregatik, erreproduzitzeko, lan-bitartekoen jabeari bere lan-indarra saltzera derrigortuta dago, behar dituen bizi-bitartekoen balioaren truke. Behin trukea eginda, lan-indarra (bai eta ekoizpen-prozesuko produktua ere) lan-baldintza objektiboen jabearena da, kapitalistarena, lanaldi osoan zehar. Era berean, kapitalista horrek langilearen bizi-bitartekoak ekoizteko behar den denbora baino gehiagoan erabiltzen du lan-indarra eta, horrela, bere egiten duen soberakina sortzen du. Hots, plusbalioa. Beste modu batera esanda, ekoizpen-modu kapitalistan, lan-prozesua balorizazio-prozesu ere bada: langileak, ekoiztako merkantziari, erabilitako ekoizpen-bitartekoen balioa transferitzeaz gain, balio berri bat gehitzen dio, bere lan-indarra erostean ordaindutakoa baino handiagoa dena beti.

Ekoiztako merkantzia salduta, ekoizpen-prozesuan kontsumitu den kapital konstantearen eta aldakorren balioa berdintzea lortzen da, eta gainontzeko plusbalioa kapital

konstante eta/edo aldakor gehigarria erosteko erabil daiteke. Gero eta balio handiagoa duen kapitalaren ekoizpen- eta zirkulazio-prozesu jarraituak *kapital-metaketa* edo *kapitalaren erreprodukzio hedatua* du izena. Bere mugimendua  $D-M-D'-M-D''-M-D'''$  sekuentziak islatzen du, non  $D' < D'' < D'''$  gertatzen baita eta non  $M$ -k ekoizpen-prozesu kapitalistaren emaitza den edozein merkantzia irudikatzen baitu.

Lehen buruan, kapital-metaketaren magnitudea *irabaziaren* araberakoa da; hau da, ekoizpen-prozesu jakin batean kapitalistak bere egiten duen guztizko plusbalioaren araberakoa. Epe luzean, irabazia da metaketaren goi-muga. Ezin da irabazten dena baino gehiago metatu; alegia, ekoizpen-kostu kapitalistak gainditzen dituen diru-sarreraren zatia baino gehiago.

Bigarrenik, metaketaren magnitudea *kapitalizazioak* baldintzatzen du, hau da, kapital aldakor eta/edo konstante gehigarria erosteko erabiltzen den irabazi horren proportzioak. Hortaz, irabaziek eta kapitalizazioak determinatzen dute funtsean kapital-metaketa.

Nolanahi ere, irabazien kapitalizazio-maila ez da aldagai independentea: kapitalistaren irabazi-aurreikuspenen araberakoa da. Bestalde, behar bezain altua den irabazi-tasa batek aukera ematen die kapitalistei lortutako irabaziak ekoizpen-prozesu kapitalistan berriro inbertitzeko. Irabazi-tasa gutxitzeak, aldiz, operazio hori zailtzen du. *Kapital-gainmetaketa* esaten zaio kapital-kantitate jakin batek (edozein dela bere forma: diru-kapitala, ekoizpen-kapitala edo merkataritza-kapitala) ezin duenean kapitalaren zikloa egiten jarraitu eta behar adinako irabazia eman. Oro har,

diru-magnitude gisa agertzen da, aldeztatik inbertitutako kapitala barnebiltzen duena, baina indarrean dauden baldintzetan ezin dena arrakastaz berriro inbertitu.

Irabaziak murrizteak, kapitalaren balorizazio-prozesua zailtzen duenez, gainmetaketa- egoera hedatzen du. Balorizatzeko mugimenduan jarri ezin daitezkeen balio-masak ekonomia osoan hedatutako fenomeno direnean, inbertsioa, orokorki eta bortizki, gelditu egiten da; hots, *krisi ekonomikoa* gertatzen da. Krisi ekonomikoa, kapital ugari modu errentagarrian inbertitzeko aukerarik ez izatea den aldetik, irabazi-tasaren jaitsieragatik gertatzen da. Era berean, irabazi-tasaren jaitsiera horrek zaildu egiten du egindako zorra ordaitzea. Ondorioz, krisi garaian kaudimengabezia eta ez-ordaintzeak nagusitzen dira. Beraz, krisiak kapitalaren suntsiketa dakar berarekin, hau da, ekoizpen- eta finantza-aktiboak saltzea eta likidatzea. Aktiboen saltzeak, irabaziaren zati alikuota baterako sarbidea ematen du, horiek eskuratzeko hasieran aurreratu zen balioaren azpitik. Kapital-suntsiketa ez da soilik kapital-aktibo fisikoen suntsiketa; batez ere, kapital-aktiboen balioa suntsitzea dakar. Horrek ondorengoa esan nahi du: makina eta eraikinak geldirik egon badaitezke ere, kapital-suntsiketa gehiena kapital-aktiboen balioa (bai produktiboak, bai finantziarioak, bai eta zorrak ez ordainduz ere) gutxituz gautzen da. Balioa gutxitu denez, kapitalista berriek aktibo horiek modu errentagarrian erabili ahal izango dituzte, jabetza-titulo horiek diru-balio txikiagoan erosi baitituzte; lehengo irabazi berak izango dituzte, baina orain aurreratu-

tako kapital-magnituda gehiago hurbiltzen da beharrezko errentagarritasunera.

Krisi ekonomikoek, kapital konstantea desbalorizatuz eta kapital aldakorretik plusbalio gehiago ateraz, jarduera ekonomikoa bortizki murrizten dute; eta, horrela, kapital-inbertsioak berriro ere irabazi nahikoak lortzeko moduko metaketa-baldintzak berritzen dituzte. Finean, mugimendu hori honetan datza: 1) irabazi-tasa jaistea; 2) balorizatu ezin den kapital-masa handitzea; 3) gainmetatutako kapitalaren magnituda handitzea; 4) krisia eta desbalorizazioa; 5) metaketa-baldintzak berritzea. Elementu horiek aldizkakoak eta errepikakorrak dira. Horregatik, ziklo ekonomikoa osatzen dute.

Hala ere, errentagarritasun-aukerak berritzeko suntsitu beharreko kapitalaren bolumenak handitzeko joera du, ekonomia-ekoizpen-indarrak garatu ahala. Hori horrela da ekoizpen-modu kapitalistak kapitalaren balio-osaera handitzeko joera duelako; alegia, garapen teknikoen ondorioz, kapital konstantearen proportzioak handitzera egiten duelako aurreratu den balio osoarekiko. Kapitalismoa teknikoki eta teknologikoki garatzen doan heinean, kapitalaren zati gero eta handiagoa da kapital konstante finkoa (zeina oraindik ez den osoki kontsumitu eta bere balioa gerora ekoitziko den merkantziari trasferitzeke dagoen). Amortizatu gabeko kapitalaren suntsitzeak dakartzan kostu sozialak ez dira desiragarriak kapitalistentzat, ez eta kapital-metaketa-egoera orokorra zaintzeaz arduratzen diren politikarientzat ere. Horregatik, ehun kapitalistaren zati handi baten kiebra saiheste aldera, *politika ekonomikoko* mekanismoak jartzen

dituzte martxan metaketaren baldintza orokorrak babesteko. Neurri horiek bultzatzen dituzten politika monetario edo fiskalen helburua kapital jakinen irabaziak bermatzea da; halakorik ezean, krisi egoerak harrapatuko eta likidatuko lituzkeen kapital jakinen irabaziak, hain zuzen.

Testuinguru horretan, krisi ekonomikoak eragiten duen desbalarizazio-prozesua politika ekonomikoak arintzen duenez eta ez denez behar bezain sakona, *geldialdia* edo *gainmetaketa orokorra* gertatzen da. Egoera horretan nagusi dira, batetik, irabazi-tasa baxuak eta, bestetik, modu errentagarrian inbertitu ezin daitekeen kapital-soberakina. Arestian aipatutako bideak erabiliz, Estatuak ekidin egiten du krisiak metaketa-baldintzak berritzeko funtzioa betetzea, eta kapital-suntsiketa saihestezina atzeratzen du. Liki-dezia-bermearen edo laguntza fiskalen bidez, behar bezain lehiakorrak ez diren kapitalei metatzen jarraitzeko aukera ematen die. Edozein kasutan, kapital horiek euren betebeharrak finantzarioei aurre egin behar dieten unean (edo, beren ordean, Estatuak aurre egin behar dienean), agerian geratuko da ez dutela sortu betebeharrak asebetetzeko nahikoa plusbalio, eta horrela krisi ekonomiko berri eta handiagoa sortuko da.

## 6. Aztergaiaren kategorizazioa

Jarraian *Ekonomia politikoaren kritikako* zenbait funtsezko kategorien definizio zehatzak eskaintzen dira. Kategoría konplexuen kasuan, horiek osatzen dituzten elementu sinpleak eta beren arteko erlazio matematikoak identifikatzen dira, koiuntura ekonomikoaren analisi empirikoan zein modutan erabiltzen diren argitze aldera.

### 6.1. KATEGORIA SINPLEAK

**Kapital konstantea** (kk) ekoizpen-bitartekoei dagokien kapitalaren zatia da (makinak, eraikinak, lehengaiak, lanerako tresnak eta ekipoak, etab.). Ekoizpen-bitarteko horiek kontsumitzean (hau da, soldatapeko langileek beroriek erabiltzean), duten balioa ekoizte bidean den merkantziari trasferitzen zaie.

**Kapital aldakorra** (ka) lan-indarraren balioari dagokion kapitalaren zatia da. Ekoizpen-prozesuan erabiltzean, lan-indarrak balio berri bat sortzen du. Hau da, bere balioa erreproduzitzeaz gain, kapitalistak bereganatzen duen soberakin bat sortzen du.

**Kapital finkoa**, zirkulazioari dagokionez, bere balioa hainbat ekoizpen-ziklotan zehar transferitzen duen kapitalaren zatia da. Kapital finkoaren barruan, ekoizpen-prozesu

batean baino gehiagotan beren balioa transferitzen duten lanerako tresnak daude.

**Kapital zirkulatzailea**, zirkulazioaren ikuspuntutik, kapitalaren beste zatia da, zeinak ekoizpen-ziklo bakarrean bere balioa osoki transferitzen duen. Kapital zirkulatzailearen baitan daude, alde batetik, ekoizpen-ziko batean kontsumitzen diren lehengaiak eta lanerako tresnak; eta, bestetik, lan-indarra.

**Plusbalioa** pluslanak ekoizpen-modu kapitalistan hartzen duen forma espezifikoa da, hau da, langileak balio-kiderik jaso gabe egiten duen lanaren balioa. Bere soldataren eta sortutako balio osoaren arteko aldea da.

**Plubalio-masa** (p) ekoizpen prozesuan ekoitzitako plusbalio osoa da. Plusbalio hori honela banatzen da: enpresa-irabazia, kapital-interesa, lurraren edo zoruaren errenta eta kapitalari ezarritako tributuak.

Kapitalaren **errotazio-denbora** aurrez jarritako kapitalak jabearen eskuetara bueltatzeko behar duen denbora da. Hasierako ordainketa hori errentagarri egiteko ekoitzi eta saldu behar den merkantzia-masaren ekoizpen-denborak eta zirkulazio-denborak osatzen dute.

**Aurreratutako kapitala** ekoizpen-prozesua martxan jartzeko erabili behar den hasierako kapitala da, ekoitzitako merkantziak saldu ondoren etekin handiago bat eskuratze-kotan jartzen dena.

**Erabilitako kapitala** ekoizpen-prozesu batean erabilitako kapitalaren zatia da, bere balioa ekoitzitako merkantziari transferitzen diona. Horiek horrela, honakoek osatzen dute ekoizpen-prozesuan erabilitako kapitala: kontratatutako

kapital aldakorra, kapital konstante zirkulatzaila, eta ekoitzitako merkantziari bere balioa transferitzen dion kapital konstante finkoa.

**Metaketa edo erreprodukzio hedatua** ( $\Delta K$ ) kapital aurreratuaren (konstantea edo aldakorra) gehikuntza da, kapitalaren errotazio baten eta bestearen artean gertatzen dena. Hortaz, plusbalioa kapital bihurtzea da.

## 6.2.KATEGORIA KONPLEXUAK

**Irabazi-tasa** ekoitzitako plusbalio-masaren eta hori sortzeko aurreratu beharreko guztizko kapitalaren arteko erlazioa da. Honela adierazten da:

$$\frac{p}{K}$$

**Metaketa-tasa** metatzen den kapital gehigarriaren eta aurreratutako kapitalaren arteko erlazioa da. Modu honetan adierazten da:

$$\frac{\Delta K}{K}$$

**Kapitalizazio-tasa** metatutako plusbalioaren eta ekoitzitako plusbalio osoaren arteko erlazioa da. Modu honetan adierazten da:

$$\frac{\Delta K}{p}$$

Kapital baten **balio-osaera** kapital konstantearen balioaren eta kapital aldakorraren balioaren arteko erlazioa da. Modu honetan adierazten da:

$$\frac{kk^a}{ka^a}$$

# 7. Adierazleen eraketa

## 7.1. ADIERAZLE SINPLEAK

Atal honetan, hipotesiak kontrastatzeko erabiltzen diren zenbait adierazle ekonomiko zehazten dira. **Letra lodiz** kategoria marxiarrak agertzen dira; *letra etzanez*, berriz, horien baliora hurbiltzeko erabiltzen diren Kontabilitate Nazionalaren aldagaiak; azkenik, parentesien artean, aldagaiaren izenaren atzean, AMECO datu basean aldagaia identifikatzeko etiketa.

**Kapital konstante finkoaren** kantitatea Kapital Stockaren (OKND) bidez kalkulatzen da, eta ekonomia baten ekoizpen-aparatuan aurreratuta dagoen kapital finko osoaren balioa eskaintzen du, zeinaren errotazio-denbora urtebetetik gorakoa den. Eskuragarri dauden datu makroekonomikoetatik kapital konstante zirkulatzaillearen magnitudea zehaztasunez ondoriztatzeko zailtasuna dela eta, adierazleak ez du horri buruzko daturik ematen. Hala ere, kapital konstante zirkulatzaillearen kantitatea proportzionalki askoz ere txikiagoa da finkoarena baino. Gainera, proportzio hori, maila agregatuan, ez da aldatzen aztertutako aldian zehar. Horrenbestez, kapital konstante zirkulatzaila ez erabiltzeak ez du azterlan honen helburua aldatzen.

Urteko **kapital konstante finkoaren gehikuntza** *Kapital Finkoaren Eraketa Garbiaren (UINT)* bidez kalkulatzen da. Adierazle honek kapital finkoaren urteko gehikuntza

jasotzen du, haren balio-galera kenduta; hau da, erabiltzearen ondorioz merkantziari transferitzen dion balioaren portzioa kenduta.

Urtean zehar **erabilitako kapital aldakorraren** kantitatea *Enplegatuen Konpentsazioa (UWCD)* erabiliz kalkulatzeko da. Adierazle honetan, kapitalistek soldatapekoen imediatuki egin behar dizkioten ordainketak sartzen dira, bai eta Estatuari Gizarte Segurantzako kontribuzio gisa ematen diotena. Izan ere, azken hori kapitalistentzat lan-kostuen parte da, hau da, lan-indarra erabiltzeko mugitu beharreko diruaren parte.

Aipatzekoa da, ez dela jakinekoa zein abiaduratan inbertitzen den kapitala lan-indarraren erosketan eta zein abiaduratan berreskuratzen den ekoizpen-prozesuan sortutako merkantziak saldu ondoren; esan nahi baita, ez da jakinekoa kapital aldakorraren errotazio-tasa zein den. Hori dela eta, ezinezkoa da aurreratutako kapital aldakorraren magnitudea zehaztea eskura dauden datuetatik abiatuta.

**Plusbalio-masa** *Ustiapeneko Soberakin Garbiaren (UOND)* bitartez kalkulatzeko da, *Inportazioen eta Ekoizpenaren gaineko Tributuak ken Subsidioak edo Zergak (UTVN)* gehituta. Zerga gehitu aurreko datuekin kalkulatuta dagoenez, plusbalio-masak plusbalioaren forma guztiak hartzen ditu (lurzoruaren errenta, interesa eta irabazia), bai eta Estatuak egindako kenkariak ere.

## 7.2. ADIERAZLE KONPLEXUAK

Jarraian datozen adierazle konplexuak, goiko adierazle sinpleak erabiliz eratu daitezke. Horien bilakaera, 1996 eta 2023 urte artekoa, zortzigarren atalean azaldu eta aztertuko da, 3. puntuan azaldutako hipotesiekin loturan. Adierazle guztiak t urtearen arabera zehaztuta daude.

Erabaki da horietan guztietan aurreratutako kapitalera gerturatzeko kapital konstante finkoa soilik kontuan hartzea, lehenago azaldutako arrazoiengatik: ez dago informaziorik erabilitako kapital konstante zirkulatzailaren magnitudeari buruz, are gutxiago aurreratzen den proportzioari buruz; kapital aldakorrari dagokionez, erabilitako zenbatekoa soilik ezagutzen da, baina ez dago modurik kapital horren zein zati den aurreratua jakiteko. Horrenbestez, *Kapital Stock*ak (hau da, kapital konstante finkoaren magnitudea) bakarrik adierazten du zehaztasunez aurreratutako balioa den kapital-magnitude bat.

### **Irabazi-tasa:**

$$\frac{\text{Ustiapeneko Soberakin Garbia } (t) + \text{Zergak } (t)}{\text{Kapital Stocka } (t)}$$

### **Kapitalaren metaketa-tasa:**

$$\frac{\text{Kapital Finkoaren Eraketa Garbia } (t)}{\text{Kapital Stocka } (t-1)}$$

### **Kapitalizazio-tasa:**

$$\frac{\text{Kapital Finkoaren Eraketa Garbia } (t)}{\text{Ustiapeneko Soberakin Garbia } (t-1) + \text{Zergak } (t-1)}$$

Hemen, ekonomia pribatuaren kapitalizazio-tasa hartzen da kontuan, eta, beraz, ez da kontuan hartzen Estatuak eskuratutako kapital finko berria.

**Balio-osaera:**

$$\frac{\textit{Kapital Stocka (t)}}{\textit{Enplegatuen konpentsazioa (t)}}$$

### **7.3. ADIERAZLEAK PREZIOEN MAILA OROKORRAREN BILAKAERARI EGOKITZEA**

Aurreko ataleko adierazleen balio-bilakaera zehazki irudikatzeko, kasurik kasu kanpo utzi behar dira prezioen maila orokorraren aldaketek eragindako balio-alterazioak. Hori deflatore batzuen bidez egiten da, zeintzuek urtean zehar mota ezberdinetako merkantzien prezioek jasaten dituzten aldaketak kalkulatzeko erabiltzen dituzten. Kasu guztietan diruaren 2015eko balioa hartzen da erreferentziazat. Beraz, magnitudeak adierazten dituzten unitateak 2015eko euro konstanteak dira.

BPGren (PVGd) deflatorearen bidez, Ustiapeneko Soberrakin Garbia eta zergak doitzen dira. Ekoizpen-ondasunen deflatorea (PIGT) aktibo finkoak diren balio-magnitudeei soilik aplikatzen zaie, hau da, Kapital-Stockari eta urtero gehitzen zaion Kapital Finkoaren Eraketa berriari. Azkenik, kontsumoko prezioen indize harmonizatua (ZCPIH), kontsumo-ondasunen inflazioa kalkulatzeko erabiltzen da.


## 8. Analisia eta emaitzak

Atal honetan, aurreko hipotesiak kontrastatzeko beharrezkoak diren balio makroekonomikoen bilakaera azaldu, aztertu eta iruzkinduko da.

### 8.1. 2008: LEHIA, IRABAZI URRIA ETA ZORRA

1999. urtearen eta, gutxienez, krisi ekonomikoaren hasieraren artean, Europako ekonomiak nolabaiteko dinamismoa zuen metaketa-erritmoan. Denbora-tarte horretan, kapital konstante berri eta modernoan inbertitu zen, eta, horren ondorioz, lan-indarraren ordezkapen erlatiboa gertatu zen. Hori erakusten du balio-osaeraren bilakaerak, izan ere, 1999-2009 bitarteko hamar urteetan % 9,71 hazi zen.

## 1. 1999tik 2023ra bitarteko Europako kapitalaren balio-osaera, 2015eko euro konstanteetan.




**Iturria:** norberak egina, AMECOn datuetan oinarrituta.

2009 eta 2013 artean kapitalaren balio-osaerak gora egi-ten jarraitu bazuen ere, urte horietan enpleguak suntsitzearen ondorioz gertatu zen hori, nagusiki: 2013an, soldata-masa erreala 2009koa baino % 1,40 txikiagoa zen oraindik. 1999-2008 artean, aldiz, balio-osaeraren gehikuntza kapital konstantearen metaketa-tasak eragindakoa zen, soldaten urteko ordainketen igoera baino handiagoa zena.

Era berean, urte horietan kapitalaren balio-osaeraren hazkundera irabazi-tasaren geldialdiarekin batera gertatu zen. 1995 eta 2008 artean, hamahiru urtez, Europako ekonomiaren batez besteko irabazi-tasak ez zuen ia bilakaera positiborik izan: 8,6 eta 8,8 puntu artean mantendu zen, burtsako krak baten aurretiko ohiko gorabeherak salbu.


## 2. Europako ekonomiaren zerga osteko batez besteko irabazi-tasa 1995 eta 2008 artean.



**Iturria:** norberak egina, AMECOren datuetan oinarrituta.

Areago, zor korporatiboa Europako metaketa-dinamikaren zutabe sendoa izan zen 1999-2008 aldian. Izan ere, urte horietan, euroguneko egungo hogeitaz herrialdeetako enpresek % 77,87 handitu zuten epe luzeko zorraren bolu-mena (urtebetetik gorako epemugekin).

### 3. Euroguneko korporazio ez-finantzarioek 1999-2008 aldian jaulkitako epe luzeko zor-baloreak, 2015eko milaka miloi eurotan.




**Iturria:** norberak egina, EBZren datuetan oinarrituta.

Hala ere, zorpetu ziren enpresa guztiak ez ziren iritsi balorizazio-prozesu arrakastatsuak abian jartzera. Merkatuak eskatzen zuen berrikuntza teknikoaren erritmoari eusteko gai izan zirenek bakarrik lortu zuten, hau da, batez bestekoaren gainetiko irabaziak zituztenek. Gainerakoek, enpresa aurreratuenek baino mozkin-tasa txikiagoak zituztenek, zorraren birfinantzaketarekiko mendekotasuna handitzen jarraitu zuten, eta kostata egin ziezaioketen aurre maileguaren ordainari. Izan ere, batez besteko irabazi-tasa % 8 eta % 9 artean geldituta zegoen, eta errentagarritasun nahiko ez izateak hartzekodunentzako ordainketak egunean ez izatea ekar zezakeen.

Euroguneko enpresen urte horietako batez besteko irabazi-tasa eta finantzaketa-kostua alderatuz gero (EBZtik lortutako *cost-of-borrowing*ari buruzko datuak), honakoa ikus daiteke: enpresa askorentzat ez zen nahikoa izan krisia hasi aurreko ekitaldietan lortutako irabazia interes-tasa gero eta handiagoei aurre egiteko. Horrela, enpresa zordunek ordaindu behar zuten interesa hazteak haien irabazi garbia murriztea ekarri zuen.

#### 4. 2003 eta 2008 arteko batez besteko irabazi-tasa, interesak ordaintzeko erabilitakoa eta gainerakoa bereizita.




**Iturria:** norberak egina, AMECOren eta EBZren datuetan oinarrituta.

Ez alferrik, 2008tik aurrera enpresek epe laburreko kreditua lortzeko zuten gaitasunaren joera-aldaketa erradikala atzematen da: 2008ko azken hiruhilekoan 130.465 milioi euro maileguan hartzetik, 2019ko azken hiruhilekoan

76.014 milioi hartzera igaro ziren. Zorraren interes-tasari lotuta enpresa-irabazia murrizteak Europako sozietateen finantzaketa-gaitasunaren murriztea ekarri zuen.

### 5. Euroguneko korporazio ez-finantzarioek 1999tik 2023ra jaulkitako epe laburreko zorra, 2015eko milaka miloi eurotan.




**Iturria:** norberak egina, EBZren datuetan oinarrituta.

2007-08ko finantza-kraka krisi ekonomikoaren katalizatzaile izan zen Europako ekonomia estrukturaliki ahul zegoen testuinguruan. Urte horretatik aurrera, kaudimenik gabeko enpresak izugarri areagotzen hasi ziren, ez zutelako beren zorraren kostuak ordaintzea lortzen; agerian utzita, horrela, gainmetatutako kapitalak zirela. Balorizazio-prozesu arrakastatsuak abian jartzeko gaitasunik gabeko kapitalak

ziren, ez zutenak lehiakor izateko eta obligazioetan egunean egoteko adinako irabazia sortzen.

Asko aldatzen da zorrak ordaintzeko ezintasuna eta enpresa bat kaudimengabetzat jotzea herrialde bakoitzeko legediaren arabera. Gainera, ez da erraza horri buruzko datuak lortzea. Allianz Tradek, 2008an 2007an baino % 32 kiebra gehiago izan zituen Mendebaldeko Europan, eta % 33ko igo ziren 2009an, 2008an izandakoen aldean (Euler Hermes, 2023). Aldiz, behatutako aldian badaude Europar Batasuneko enpresen fusioei eta erosketei buruzko datuak.

## 6. Europan 1995etik 2023ra bitartean egindako fusio- eta erosketa-eragiketen kopurua eta zenbatekoa, milaka miloi euro arruntetan.



**Iturria:** norberak egina, IMAA Institute-ren datuetan oinarrituta.

6. irudiak erakusten duen bezala, 2007tik 2013ra bitarteko fusio- edo erosketa-eragiketek 2006koak gainditu zituzten urtero. Hala ere, 2008an bat-bateko beherakada izan zen eragiketa horien balioan, aurreko urtean 1.781.560.000 euro izatetik 961.430.000 euro izatera igaro baitziren. Hurrengo urtean, kopuruak behera egin zuen berriro, eta 600.000.000 euro inguru izan ziren 2014ra arte. Bilakaera horren arrazoia da urte horietan kapital-suntsiketa handia gertatu zela. Enpresa asko saldo-prezioetan saldu ziren, hau da, beren aktiboek ustez zuten balioaren azpitik. Horrela, kapital finko asko eskuz aldatu zen, non, prezio berri horietan erosi ondoren, metatzen jarraitzeko adina irabazi-tasa emango zuen. Mekanismo horren bidez, krisiek errentagarritasunaren baldintzak berritzen dituzte: erabilitako kapital konstantearen desbalorizazioa. Hala ere, nahikoa izan al zen desbalorizazio hori? Nola jokatu zuen Europako ekonomiak berregituraketa-prozesu horren ondoren?


## **8.2. KRISITIK IRTETEA? IRABAZI URRIA, METAKETA MOTELA ETA GUTXIENKO KAPITALIZAZIOA**

Krisiaren urte zentraletan ez zen aldeaz aurreko dinamika ekonomikoa berrezartzeko behar zen adina kapital desbalorizatu. Hori egiazta daiteke, aldagai makroekonomiko berriak kontuan hartzeaz gain, aurretik azaldutako behaketetako batzuk denboran luzatuta; izan ere, 2008. urteak argi eta garbi bereizitako bi koiuntura ekonomiko erakusten dituzte behaketa horiek.

Lehenik eta behin, batez besteko irabazi-tasa ez da krisiaren aurreko mailetara itzuli. Zifra hori ehuneko puntu bat

beherago egonkortu da, eta desoreka ekonomiko ororekiko kapitalaren ahultasuna handitu egin da. 2008ko irabaziaren depresioa geratzeko etorri zen.


**7. Europako ekonomiaren zergen ondorengo batez besteko irabazi-tasa 1995 eta 2023 artean**



**Iturria:** norberak egina, AMECOren datuetan oinarrituta.

5. irudian ageri denez, epe motzera jaulkitako zorra nabarmen murriztu zen finantza-krakaren ondorengo aldian. Hala ere, Europako ekonomiak zorrarekiko zuen egiturazko mendekotasuna ez zen ahuldu; alderantziz, indartu egin zen. Egiaz, 2008ko mailetan mantendu beharrean, gora egin zuen, jaulkitako epe luzeko zor-tituluen balioari buruzko datuen serie osoak erakusten duen bezala.

## 8. Euroguneko korporazio ez-finantzarioek 1999tik 2023ra jaulkitako epe luzeko zorra, 2015eko milaka miloi eurotan.




**Iturria:** norberak egina, EBZren datuetan oinarrituta.

Gainera, 2023ko laugarren hiruhilekoan 1.242,977 mila milioi euro hartu ziren maileguz, eta epe luzeko zorra izanik, litekeena da aurrez beste horrenbeste pilatu izana. Are gehiago, zifrak termino errealetan direnez, 2021eko eta 2022ko jaitsiera inflazioak eragindako zenbatekoen araberakoa da, eta ez joera-aldaketa bat: Europako ekonomiaren metaketa-eredua zorpetze sistemikoan oinarritzen da; eta, horrez gain, egungo irabazi-tasak adierazten du kapitalistek ez dutela sortuko hartzekodunen ordainketa-eskakizunak asetzeko adinako etekinik.

Horrela, batez besteko irabazi-maila gutxituak kapital-metaketari oinarri estuagoa jartzen dio: irabazia

murriztean, metatu daitekeen kapital berriaren gehieneko muga ere urritu egiten da. Horren adierazgarria da, halaber, metaketa-tasak 2008tik izan duen murrizketa irmoa.

## 9. Europako ekonomiaren metaketa-tasa 1996tik 2023ra bitartean.




**Iturria:** norberak egina, AMECOn datuetan oinarrituta.

Irabaziaren joera emulatuz gero, ikus daiteke metaketa, gutxi gorabehera, % 2 eta % 2,56 artean mantendu zela 1996-2008 aldian; aldiz, krisia hasi zenetik erdia baino gehiago murriztu zen, 2023an % 1,23an kokatu zen arte.

Era berean, bada irabazi-tasarekiko metaketa-tasaren bilakaera hori azaltzen duen beste elementu bat: kapitalisten irabazia (hau da, metaketara bideratu dezaketen kopurua) murrizteaz gain, kapital gehigarria erosteko baliatzen duten irabaziaren zatia ere txikitu egin da.

## 10. Sektore pribatuaren kapitalizazio-tasa Europako ekonomian 1996tik 2023ra bitartean.



**Iturria:** norberak egina, AMECOren datuetan oinarrituta.

2007an, zergen osteko irabaziaren ia laurdena kapital finko berria erosteko erabili zuten enpresek: egun, aldiz, % 13,12 baino ez. Gainera, metaketa- eta kapitalizazio-tasetan (ez irabazi-tasan) goranzko mugimendu moderatu eta progresiboa antzeman daiteke, 2013tik 2020ra artekoa. Zer aldatu zen krisialdiko lehen urteen ondorengo garai horretan?

### 8.3.GAINMETAKETAREN POLITIKA EKONOMIKOA

Krisia hasi zenetik, kapitalari metaketa-baldintza orokor-  
rrak bermatzeko egin zuten lan agintari politikoek. Bada, ka-  
pitala ahula denean (alegia, finantza-obligazioen ordainketari  
eusteko adina etekin sortzeko ia gai ez denean), lehenengo  
eginkizuna finantzazio-kostua murrizten saiatzea izaten da.


## 11. 'Main Refinancing Operations' interes-tasaren bilakaera 1999 eta 2023 artean.



**Iturria:** norberak egin, EBZren datuetan oinarrituta.

Zuzenean ez bada ere, Banku Zentrala ekonomian eragiten saiatu zen, mailegu-funtsen eskaintzan eta eskarian eraginez eta enpresa-kreditua merkatzea bilatuz. 2008. urtekoa bezalako testuinguru batean funtsezkoa zen enpresen finantzaketa-kostua minimizatzea: 12. irudian ikus daitekeenez, enpresen irabazia interesez itotzen zuten.

## 12. 2003 eta 2023 arteko batez besteko irabazi-tasa, interesak ordaintzeko erabilitakoa eta gainerakoa bereizita.



**Iturria:** norberak egina, AMECOn eta EBZren datuetan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, murrizketa hori ez zen berehalakoa izan. 2014tik aurrera tasa ofizialak % 0an kokatzea erabaki zen, eta, ondorioz, zor korporatiboen batez besteko interesa etengabe murriztu zen.


Esku-hartze politiko hori alde batetik eraginkorra izanik ere, badu bere kostua: behar bezain lehiakorak ez diren, alegia, batez besteko irabazi-tasaren azpitik dauden enpresa-kopurua igotzea. Enpresa horiek, kreditu merkearekin, behin eta berriz birfinantza dezakete zorra, eta ez dute ia interesik ordaintzen. Politika monetario hedakorrak, beraz, gainmetatutako kapital ugari sortzen ditu, eta, errentagarri

inbertitzen ez diren arren, horien lehiakortasunik ezak ez du ondorio larriarik. Ildo horretan, pixkanaka-pixkanaka gero eta gainmetaketa handiagoa ahalbidetzen du, kapitalaren desbalarizazioa eta suntsiketa geroratzuz.

2010ean, EBZ zorra erosten hasi zen krisia hasi eta bi urtera. Hala ere, 2014an abiatu zituen, besteak beste, honako programa hauek: Asset-Backed Securities Purchase Programme, Covered Bond Purchase Programme (zor publikoko titulu ez-seguruetara bideratua) eta Corporate Sector Purchase Programme. Tituluak erostearen bidez, EBZk milioika euro sartu zituen eskudirutan Europako ekonomian, titulu horien jabeek desiratutako interesak emango ote zituzten jakin gabe.

Gainera, EBZren jarduna ez zen hor gelditu. 2012. urtearen bueltan, kapitala suntsitzeko arriskua zegoen, eta horrek esan nahi zuen bazirela ez ordaintzeko aukeran zeuden zor-tituluak. Horrela, finantzaketa korporatiboa garestitzea saihesteko, EBZk azken instantziako mailegu-emailaren funtzioa hartu zuen, eta bigarren mailako merkatuetan zor publikoa eta korporatiboa masiboki erosteko programak gauzatu zituen berehala. Horrekin, Europako zorraren tituluen eskaria handitzea lortu zuen, eta Europako kapital-metaketa arintzen saiatu zen, kreditua hedatuz.

### 13. EBZren epe laburreko eta luzeko zorra, 2009 eta 2023 artean, milaka milioi euro arruntetan.




**Iturria:** norberak egina, EBZren datuetan oinarrituta.

EBZk martxan jarri zuen azken programa Pandemic Emergency Purchase Programme izan zen. Horrek azaltzen du EBZk 2020tik jabetzan izan dituen epe laburreko zor-tituluen balioaren aldaketa. Hala ere, Bankuak dituen betebeharrak gehienak epe luzean amaitzen dira, eta EBZk ekonomian izan duen esku-hartzearen garrantziaren adierazgarri dira; azken 9 urteetan bermatu duen kapital-kopuru handiaren adierazgarri, errentagarritasuna gorabehera.

Interes-tasa baxuen eta aktiboak erosteko programen amaierarekin, estatu kapitalistak ekonomian duen esku-hartzearen modalitatea aldatzen ari da, eta politika fiskal hedakorra ari da protagonismoa hartzen. Dena den, bere funtzioa berdina da: Estatutik egindako transferentziarik gabe, merkatu kapitalistan zailtasunak izango lituzketen kapitalen lehiakortasuna bermatzea.


#### 14. 1996tik 2023ra bitartean merkantzien ekoizpena eta kontsumoa diruz laguntzeko Estatuaren gastuak, BPGrekiko ehunekoa.



**Iturria:** norberak egina, AMECOren datuetan oinarrituta.

Ildo horretan, argigarria da enpresa kapitalistei edo ho-rien kontsumitzaileei dirua ematen dieten aurrekontuetako partiden bilakaerari erreparatzea, politika fiskal hedakorra- ren garrantziaz jabetzeko. Ikus daitekeenez, dinamika hori pandemiaz harago doa, 2023an 2019ko gastu-mailetatik oso urrun baitago.

## 15. Europar Batasuneko estatuen zorra 2000 eta 2023 artean, BPGrekiko ehunekoa.



**Iturria:** norberak egina, AMECOren datuetan oinarrituta.

Horrela, Estatuak emandako dirulaguntzei esker, kapitalistek ez dituzte bere gain hartu behar beren ekoizpenaren finantzaketa-kostu guztiak. Aitzitik, Estatuak bitartekari lanak egiten ditu plusbalioa ekoizteko eta errealizatzeko baliabide monetarioak trasferituz. Izan ere, errentagarritasun-itxaropenik gabeko egoera luze batean, Estatuak baliabideak mobilizatzen ditu inbertsio pribatuak sustatzeko. Ildo beretik, argigarria da ikustea zor publikoak krisia hasi aurreko zifrak gainditzen dituela aspalditik.

## 9. Ondorioak

Azterlan honetan Europako egungo egoera ekonomikoa aztertu da, eta honako puntu hauek ondorioztatu dira:

- Europako ekonomia sistematikoki dago epe laburreko eta luzeko zorpetzearen mende.
- gutxienez 1995az geroztik dirauen batez besteko irabazi-tasa baxuak murriztu egiten ditu zorra eta bere interesak ordaintzeko bermeak, eta 2007an eta 2008an gertatutakoa bezalako ez-ordainketen kate berri bat sorraraz lezake.
- 2008an hasi zen krisiaren lehen urteetan kapital suntsiketa gogorra gertatu zen, baina ez zen nahikoa izan; izan ere, metaketa- eta kapitalizazio-tasek izugarri egin zuten behera, eta ondoren gelditu egin ziren.
- politika ekonomiko kapitalistak, une batez enpresa partikularren kapital-metaketaren baldintzen alde egin zuen arren, gainmetaketa areagotu du eta beste eztanda ekonomiko bat prestatzen ari da.

## 10. Bibliografia eta Baliabide estatistikoak

**Banco Central Europeo** (2024). *ECB Data Portal*. Eskuragarri: <https://data.ecb.europa.eu/>

**Comisión Europea, Dirección General de Asuntos Económicos y Financieros** (2024). *AMECO database*. Eskuragarri: [https://economy-finance.ec.europa.eu/economic-research-and-databases/economic-databases/ameco-database\\_en](https://economy-finance.ec.europa.eu/economic-research-and-databases/economic-databases/ameco-database_en)

**Euler Hermes** (2023). *Year-on-year growth in global business insolvencies from 2008 to 2023, by region (with predictions for 2024)*. In Statista. Eskuragarri: <https://www.statista.com/statistics/1116418/annual-growth-business-insolvencies-region/>

**Eurostat**. (2024). *Population change - Demographic balance and crude rates at national level*. Eskuragarri: [https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/demo\\_gind\\_\\_custom\\_7127262/default/table](https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/demo_gind__custom_7127262/default/table)

**IMAA Institute** (2024). *Number & Value of M&A Europe*. Eskuragarri: <https://imaa-institute.org/mergers-and-acquisitions-statistics/>

